

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Lasai, uda da, ez da aparteko ezer gertatuko **IÑAKI ALTUNA > 9**

GURASOS: «Eztabaida despolitizatu eta lasaia egiten bada, inork ez du erraustegia defendatuko» **> 18**

2016ko uztailaren 23a | X. urtea • 477. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



RAHTLIN, ESKOZIARA BEGIRA

EUROPAR BATASUNAREN BAITAN JARRAITU NAHI DUTE RATHLIN UHARTEKO (IPAR IRLANDA) BIZILAGUNEK. HORRETARAKO HAINBAT SOLUZIO AZTERTU BADITUZTE ERE, GEHIENEK BAT EGITEN DUTEN ESKARIA DA HONAKOA: «ERAMAN GAITZAZU ZUREKIN, ESKOZIA». **> 4** Joe RYAN



«Eskozia, eraman gaitzazu zurekin», Rathlin uharteko biztanleen eskaera 04

Zenbat hegotsudandar iritsiko dira Europako hirietara? 07


Gernikako Gaudeamus abesbatzak urre olimpikoa ekarri du Errusiako Koralen Olinpiadetatik 10

Ekoizpen ekologikoen topagunea prest dago 13

Gure eroan pixka bat agintzen digun bakarra 14

E.lkarrizketa: GuraSOS mugimenduko kideak 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** «Brexite 2»

08 **Ibai Gandiaga Perez de Albeniz:** Arkitekturan, euskaraz?

09 **Iñaki Altuna:** Lasai, uda da, ez da aparteko ezer gertatuko

16 **Arantxa Urbe:** Ez da... Ez!

17 **Ainara Azpiazu AXPI**

21 **Mirari Martiarena:** Ni naiz naizena

21 **Koldo Sagasti:** Sionismoaren garroak Kanpezun

22 **Olatz Arbelaitz:** Informatika eta informatikariak: haurren begirada



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

«Brexit 2»

Brexitak Ingalaterra, Gales, Eskozia eta Irlandako iparraldearen arteko harremanak zeharo alda ditzakeela argudiatu nuen aurreko artikuluan. Ingalaterraren baitan ere aldaketa politiko ugari gertatzen ari dira azken asteetan, alderdi nagusien baitan hainbat “oinordetza” borroka zabaldu direlarik.

Paradoxikoa dirudien arren, *brexitak* Alderdi Kontserbadorea indartu eta Laborista ahuldu lezake, teorian kontrakoa beharko lukeenean. Alderdi Kontserbadorea bitan banandua zegoen erreferendumean hartu beharreko jarrierari zegokionez eta Laborista, aldiz, *brexitaren* kontra askoz ere kohesionatuago.

Udazkeneko alderdi guztiek egiten dituzte alderdi konferentziak eta aurtengoek interes- eta barne-lehia izugarria erakutsiko dute. *Brexit* erreferenduma antolatzekeo arrazoi nagusietako bat Alderdi Kontserbadorearen baitako barne-lehia eta desadostasunak izan dira, eta argi zegoen, emaitza bata edo bestea izan, alderdi barruko borroka areagotu baino ez zela egingo. Baina, hori horrela izanda ere, aitortu beharra dago Alderdi Kontserbadoreak Laboristak baino hobeto eta azkarrago kudeatu duela trantsizioa. Batzuen dimisio azkarrak eta besteen aurrerapausoak alderdiaren barne-orekak berehala berkokatu ditu. Hala, alderdiak hartu dituen erabakiak konferentziak babestuko dituelakoan nago.

Alderdi Laboristaren baitan, aldiz, Jeremy Corbyn-en kontrako sektoreak indartu eta erreferendumaren emaitza baliatu dute Corbynen kontrako eraso bortitza egiteko, eta dituzten diputatuen gehiengoa haren kontra azaldu da. Nire ustez, erasotzaileek uste zuten, diputatuen babesik gabe, alderdi barruko bataila eta gerra aldi berean irabaziko zituztela eta Corbyn dimisioa aurkeztera behartua egongo zela. Ez da, oraingoz behinik behin, horrelakorik gertatu. Udazkeneko konferentzian laborismoak liderra aukeratuko du berriz, eta Corbyn berriro aurkeztuko da. Artikulu hau idazten dudanean berean ari da Jeremy Corbyn bere kanpaina aurkezten. Panorama zaila eta kontraesanez beterikoa, laborismoarentzat. Diputatu laboristen oldartzeak inork gutxi pentsa zitzaizkeen ondorioak

izan ditu. Bat, garrantzi handikoa, Alderdi Laboristaren kidegoa izugarri handitu dela ondorengo asteetan. Milaka eta milaka pertsona atxiki dira laborismora; inoiz Erresuma Batuko politikan alderdi batek izan duen kidego gorakada handiena. Pentsa daiteke –horrela diote– gehitu diren horietako gehienak Corbyn babesteko gehitu direla eta horrek udazkenean zer gertatuko den asmatzea zailtzen du.

Alderdi Laboristaren baitan badira historikoki lidergoa aukeratzeko orduan pisu garrantzitsua izan duten hiru sektore nagusi: diputatuak, sindikatuak eta alderdikideak. Egun, badirudi sindikatuak eta alderdikideak Corbyn babesten jarraitzen dutela, diputatuak ez bezala. Ondorioz, pentsa daiteke, lidergoaren bataila Corbynek irabazi edo beste hautagaien batek irabazi, alderdi barruko borroka jarraitu egingo duela. Hiru sektore horien babesak lortuko duen hautagairik ez badago, eta konferentzia egin aurretik hautagaien artean

Erreferenduma egiteko arrazoi nagusietakoa Alderdi Kontserbadoreko barne-lehia izan da. Argi zegoen, emaitza bata edo bestea izan, borroka hori areagotu baino ez zela egingo

akordiorik ez badago, eta ez dut uste izango denik, zaila izango du etorkizuneko liderrak alderdia gobernatu eta ondorioz kontserbadoreen kontra hauteskuntzetan irabazteko aukerak izatea. Ez nuke inolako agertokirik baztertuko, ezta Alderdi Laboristaren zatiketa ere. Jeremy Corbynen bizitza politikoaren helburu nagusia Alderdi Laborista ezkerreko alderdi bilakatzea izan da, eta gutxien espero zezakeenean suertatu zaio horretarako aukera. Bere mentore politikoa zen Tony Benn-ek hasitako bide beretik, ez du amore emango, eta ez dut uste barne-presioei men egingo dienik. Alderdiarekin izugarri kritikoa izan da beti, kanporatua izateko zorian egon da hainbatetan, baina beti pentsatu du aldaketa alderdi barruan egonda bultzatu behar zuela. Datozen aste eta hilabeteek britainiar laborismoaren etorkizuna marraztuko dute. •

RATHLIN UHARTEA

«Eskozia, eraman gaitzazu zurekin», diote Rathlin uharteko bizilagunek «brexit»-aren ostean

 **JENDARTEA** / Aimar Etxeberria Korta

Egun, Ipar Irlandaren parte da Rathlin uhartea. «Brexit»-aren ostean, baina, kanpaina berezi bat abiatu dute bertako bizilagun urriek. «Eskozia, eraman gaitzazu zurekin», erregutzen dute, Eskoziara batzea delakoan Europar Batasunaren baitan jarraitzeko duten nahia konplitu dezakeen irtenbide bakanetakoa.

Brexitak izango duen bilakaeraren inguruan argi-izpirik ikusten hasi ez bagara ere, jada antzeman daitezke britainiarrek hartutako bidearen hainbat albo kalte edo ondorio. Guztiek dute oinarri amankomun bat; guztiek dute Europar Batasunaren baitan ja-

rraitzearekin zerikusia. Nabar-menena, agian, Eskoziaren beraren etorkizun politikoa izan daiteke, bertako agintari eta herritarrek (erreferendumeko emaitzak horren erakusle) Europar Batasunarekin estuki lotua nahi dutena. Esanguratsua da ere pasaporte irlandarra ateratzera jo duen britainiarren kopurua, eskariak bideratzen di-

tuen agentziaren tramitazioak kolapsatzeraino. Eta interesgarria, Rathlin uharteko bizilagunek abiatu berri duten kanpaina, “Eskozia, eraman gaitzazu zurekin” erreguan oinarritzen dena.

Urte luzez egin behar da atzera Rathlin uhartearen eta Eskoziaren arteko harremanaren baitako mugarri historiko garrantzitsuak ezagutzeko. Rathlin eta Eskozia erlazionatzen dituzten lehenengo aztarna historikoak Erdi Arokoak edo lehenagokoak dira, Dal Riata erresumaren garaikoak zehazki. Dal Riata eskotoen tribuko erresuma bat izan zen eta egungo Irlanda iparraldean eta Eskozia mendebaldeko kostaldean kokatzen zen. V. mendetik IX. mende erdi ingurura arte iraun zuen aipatu erreinuak, erresumako azken errege Kenneth MacAlpinek lurraldea piktoen erresumarekin batu zuen arte. Modu horre-

Rathlin uharteko bizilagunek diote EBren baitan eman dituzten urteei esker itsas portu moderno bat dutela, bai eta bertako populazioa bikoiztu egin dela ere.
Douglas CECIL



Robert the Brucen babesleku izan zen Rathlin uhartea denboraldi batez, honek Eskoziako erregetza lortu eta berehala herrialdea utzi behar izan zuenean

Kondairaren arabera, Rathlineko leize batean jazotakoaren ondorioz Eskoziara itzuli, ingelesak garaitu eta herrialdearen independentzia aldarrikatu zuen Brucek

tan, hastapena eman zitzaion gerora Alba edo Eskozia izendapenarekin ezagutuko zen erresumari.

ROBERT THE BRUCEN BABESLEKU

Agian, baina, ezagunagoa da Rathlin uhartea Robert the Brucen babesleku izateagatik esko-toen tribuaren erresumaren parte izateagatik baino. Robert de Bruce –edo Roberto I.a– Eskoziako erregea izan zen 1306tik 1329an hil zen arte. William Wallace baino ezezagunagoa izanagatik –Hollywoodean erruz bereziki–, Wallacek besteko garrantzia dauka Brucek Eskoziako historiaren orrialdeetan. Errege izendatu bezain pronto, ingelesen aurkako kanpaina abiatu zuen Brucek, baina militarki hainbat gudutan porrot egin ostean Eskoziatik ihes egin beharrean suertatu zen.

Bada, esanak dio ihesaldi horretan ezagutu zuela Brucek

Rathlin uhartea. 1306. urtea zen, eta Bisset abizeneko familia irlandar baten jabetza zen Rathlingo gazteluan hartu zuen ostatu. Bertan, ingelesei aurre egiteko moduak pentsatzeari ekin zion eta, horretarako, leize batera jo ohi omen zuen. Bada, leize batean zela jazo zen Eskoziaren historia baldintzatuko zuen gertaera bat: gogoetan murgildua zela, armiarma bat ikusi zuen Brucek, sakonune batean amarauna josi nahian. Brucek, ordea, pentsatu zuen sakonunea handiegia zela armiarmarentzat bertan amarauna josteko. Gauzak nola, ekinnaren ekinez amarauna josi

zuen armiarmak, Bruceri lezio bat eman. Armiarmaren lorpenak gauzak argitu zizkion Bruceri, eta ingeles guztiak Eskoziatik bidali artean borroka egingo zuela zin egin zuen.

Gauzak horrela, ezkutuan egoteari utzi eta Eskoziara itzuli zen Bruce 1307. urtean. Bere herrialdera itzuli bezain pronto ingelesen aurkako gerrari ekin, eta garaipen txikiak erdietsi zituen bata bestearen atzetik. Bataila esanguratsuen 1314an jazo zen; Bannockburneko Gudua izenez ezagutzen da. Horretan, Brucek gidatutako 6.500 pertsonako armada batek ingelesen 20.000 pertsonatik gorako armada bat


garaitu zuen. Garaipenaren ostean, Bruce I.ak bere posizioa indartua ikusi eta Eskoziaren independentzia aldarrikatu zuen, ingelesen inbasioari amaiera eman.

Brucek Rathlin zapaltzerako irlandar lurraldeen parte zen uhartea, baina urte batzuk beranduago –1617an– gertu egon zen Eskoziako lurren parte izatera pasatzeko. Kondairak kontatzen duenaren arabera, Crawford of Lisnorris izeneko eskoziar batek Rathlin uhartearen gaineko jabetza aldarrikatu zuen. Haren esanetan, James IV.a Eskoziako erregeak bere arbasoen esku utzi zuen irlaren jabetza, 1500. urtean. Afera konpontzeko ez zuten –ohikoa zenez– armetara jo. Horren ordez, St. Patricken ondareari heldu zioten. Kondairak dio St. Patrickek sugeak debekatu eta Irlanda sugerik gabe utzi zuela, horiek itsasora bidaliz. Bada, antzeko zerbait egin zuten Rathlin uhartearen etorkizuna erabakitzeko: Irlandatik bidalitako sugeek uhartera iristea lortzen bazuten, eskoziarren esku geratuko zen Rathlin. Osterantzean, Irlanda izaten jarraituko zuen uharteak. Bada, sugeek ezin izan zuten bizirik iritsi Rathlinera; irlaren etorkizuna erabakita zegoen.

ESKOZIARI ERREGUKA

Lau mende beranduago eta *brexit*aren ondorioei men, berriro zabalduta da Rathlin uhartearen estatus politikoaren gaineko eztabaida. Ekialdera begira jarri dira bertako bizilagunak, errege batekin: “Eskoziak, eraman gaitzazu zurekin”. Erreferenduma burutu eta aste gutxi batzuen buruan eraiki dute kanpaina, apenas 12 milara duten Eskoziarekin harreman historikoak berreskuratzea helburu.

Eskoziara batzea Europar Batasunaren baitan jarraitzeko –euren helburu nagusia dena– urrats bat baino ez litzateke izango Rathlingo bizilagunentzat. Horiek diote Batasunaren baitan egin dituzten urteei esker daukatela egun itsas portu moderno bat eta bertako populazioa bikoiztu egin



Robert the Bruce uhartean egon zela gogorarazten duen oroigarria.

GAUR8



dela –145 lagun bizi dira egun–. Hori horrela, Eskoziaren balizko bigarren independentzia erreferendumari so dira, europar estatua mantentzeko asmoz. Baina, Eskoziara batzeaz gain, bestelako aukera batzuk ere ari dira eztabaidatzen.

Rathlin Eskoziara batzeko kanpainako bozeramaileak “Herald Scotland” egunkariari eginitako adierazpenen arabera, «erreferendumaren emaitzak ikusi ostean, hitz egiten hasi ziren Rathlingo bizilagunak, Erresuma Batu osokoak bezala, baina apur bat gehiago. Erdi broman hasitako kontu bat –jarraitu du– segituan bilakatu zen uharteak inguruko herrialdeen dituen harremanen inguruko eztabaida. Aldebakarreko independentzia aldarrikapenaren alde egiten hasi ziren batzuk, baina gehienek uharteak Eskoziarekin dituen harreman historikoak berreskuratzea hobetsi zuten».

Michael Cecil Rathlingo bizilagunen elkarteko lehendakariak bestelako ideia bat jarri du mahai gainean. Haren esanetan, oso garrantzitsua da uhartearen kokapen geografikoa, bai eta

Rathlinek Dublin eta Edinburgoren arteko harremanetan jokatzen duen papera ere: «Fair Head gainetik –Ballycastle, Ipar Irlanda– Eskozia, Ipar Irlanda eta Irlandako Errepublika ikus daitezke, gu erdian gaudela». Hori hala, uharteak hiruren arteko harremanean paper garrantzitsua jokatzen duela nabarmendu du.

Adierazi du iraganean alde batera utziak bezala sentitu zirela Belfasten partetik eta, ondorioz, inbidiaz begiratzen zituztela Edinburgotik kudeatuak ziren gainerako uharteak. «Itsasoko jaialdiak, baina, inguruko uharteekin genituen arrantza harremanak berrezarri ditu», azpima-

rratu du Cecilek. Erdi broman, adierazi du paradisu fiskal bilakatzea ere pentsatu dutela, baina bromak alde batera utzita serio dio: «Azken urteetan oso ongi zainduak izan gara, baina *brexita*k ekar dezakeenaz arduratuta bizilagunak bestelako aukera batzuk aztertzen hasiak dira, seriooki».

ILUSTRATUEN IRITZIAK

Idazlea eta zinemagilea da Margot McCuaig. Rathlin uhartekoa zen bere aita, baina bizimodu hobe baten bila jo zuen Glasgowra 1950eko hamarkadan. Glasgow eta Rathlin artean igarotzen du denbora orain McCuaigek. «*Brexita* da hizketagai

Eskuz eginitako belaontziekin lasterketa bat egin ohi dute Rathlineko bizilagunek. Ohitura bilakatu da uhartean.
Michael Cecil

nagusia uhartean eta badirudi inork ez dituela ulertzen erreferendumaren emaitzak. Etorkizunean euren bizimoduak nola-koak izango diren pentsatzen ari dira une oro. Erreferendumaz geroztik, eta berdin dio non –portuan, herriko dendan, tabernan...–, hizketagaia bakarra da». Gaineratu du gazteak direla, batez ere, euren etorkizunarekin kezkatuta daudenak. «Egoera aldatu egin da mugimendu askatasunari dagokionez eta haserre daude aurrerantzean gauzak bestelakoak izango direlako», azpimarratu du.

Uhartean bereziki da ezaguna Black sendia, batez ere Mary eta Frances ahizpak. Bada esan liteke euren dela britainiar koroari instituzio bezala gehien gerturatzen zaion Rathlin uharteko familia. Frances Blacken esanetan, sekulako ondorioak izango ditu *brexita*k. Gaineratu du, baina, bere begiekin ikusi duela Irlanda eta Eskoziaren arteko harremanetan berritasunak izan direla erreferendumaren osteko aroan. Horren harira honakoa dio: «Hainbat elkarrizketa izan ditut nire familiako kide eta Rathlingo herritarrekin. Hala, uste dut *brexita*ren ostean Eskozia eta Irlandaren –ipar eta hego– arteko batasun bat gerta daitekeela. Imajinatu dezakezu?».

Rathlin Eskoziara batzearen aldeko kanpainako eledunak 2007an Alex Salmondek –orduan Eskoziako lehen ministro–uhartera egin zuen bisita gogoratu du: «Salmondek Eskoziak Rathlinekin dituen harreman historikoen errepasoa egin zuen. Orduan Ipar Irlandako lehen ministro zen Ian Paisleyk Rathlin ‘batzuetan Eskoziaren, besteetan Irlandaren’ parte zela adierazi zuenean, honela erantzun zion Salmondek: ‘Eskoziaren parte nahi dut berriro Rathlin». «Ustekabean iritsi ote zaigu horretarako aukera?», bota du galdera. «Gauza harrigarriagoak gertatu izan dira», gaineratu du. «Baina gauza bat argi dago. Rathlingo bizilagunen gehiengoak eskari argi bat daukagu: ‘Eraman gaitzazu zurekin, Eskozia’».

Iraganean Belfasten aldetik gutxietsita sentitu arren, Europar Batasunaren baitan eman dituzten urteetan uharteak izan duen bilakaerarekin gustura dira bizilagunak

Hainbat aterabide aztertu dituzte EBren baitan jarraitzeko: aldebakarreko independentzia aldarrikapena, paradisu fiskal bilakatzea... Baina gehienek Eskoziara batzea hobesten dute



Isaac KASAMANI | AFP



IKUSMIRA

ZENBAT HEGOSUDANDAR IRITSIKO DIRA EUROPAKO HIRIETARA?

Hego Sudan munduko estaturik gazteena da, baina independentzia lortu zuenetik ez du egonkortasunik ezagutu. Borrokak dira nagusi, eta bi aldeek su-etena egitea adosten dutenean ere, herritarrek badakite ez dela fidatzekoa izaten. Iazko abuztuan adostu zuten horietako bat, baina oraindik bete ezinik dabilta. On-

dorioz, gerra lehertu zen berriz uztailearen hasieran Juba hiriburuan, bestela ere oso egoera negargarria bizi zuen hirian. Argazkian ageri diren horiek gerra atzean utzi nahian oinez abiatu zirenetako batzuk dira. Zorionekoak direla esan daiteke, muga zeharkatzea lortu baitzuten, nahiz eta hemendik aurrera zer gertatuko zaien ez dakiten. Ugandara sartu nahi zuten beste 20.000 lagunek bidea itxita aurkitu zuten. Soldaduek, aurrera egitea oztopatzeaz gain, kasu askotan lapurreta ere egiten diete. Infernutik alde egin nahian, infernu itxurako beste leku batera iritsi dira, «zerua» omen den Europarako bidean. joseangel.oria@gaur8.info



Ibai Gandiaga Perez de Albeniz
Arkitektoa

Arkitekturan, euskaraz?

Arkitekto euskaldunak betidanik egon badira ere -hala nola Pedro Manuel Ugartemendia andoaindarra-, euskaraz ikasitako arkitekto-**ok orain dela gutxi hasi dugu lan munduan ibilbidea.** Esan ohi denez, arkitekto batek 60 urte izan arte ez du bikaintasuna topatzen, erritmo geldoak darabilen diziplina baten menpeko gatibu. Horren arabera, pentsatu beharko genuke euskaraz ekoizitako maisulanak lehenago edo beranduago etorriko direla. Alta, ingurura begiratuta, euskaraz egindako proiekturik ez da (ia) ageri, eta horiek garatzeko tresnak ere, urrun daude.

Arkitektura eta hirigintzaren lan munduan euskararen inguruan hausnartzeko bildu ginen, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Eibarren antolatutako udako ikastaroan, euskaraz ikasi eta lan egiten dugun hainbat profesional. Bertaratu ginenon artean, profesional liberalak, udal arkitektoak, Arkitektoen Elkargoko ordezkariak, unibertsitateko irakasleak, ikasleak eta linguistak zeuden. Ondorioak ondorio, gauza bat argi gelditu zen Eibarreko bilera horretan: euskaraz lan egiteko gogoak egon badaudela, eta gauzak bere horretan lagaz gero, ezingo dugula gurari hori bete.

Hau honela izanik, komeni da argitzea arkitektura eta hirigintzaren ondorioa eta «gorpuzketa» eraikina eta gure herrietako plangintzak badira ere, proiektu horiek gauzatze aldera makina bat dokumentu bete behar direla: araudiak justifikatu, helegiteak idatzi, legeak kontsultatu, aurrekontuak idatzi... Lan hori, benetan estimagarriak diren hainbat salbuespen salbu, gaztelania peto-petoan egiten da. Hainbat arrazoi bilatu badaitezke ere, egia borobila hau dela deritzot: bai bete beharreko araudia (hala-beharrez bete beharreko Eraikintzaren Kode Teknikotik hasita) bai justifikatu beharreko legedia ere (Lurzoru Legea, eta abar) gaztelaniaz erabiltzen dira, zenbait kasutan itzulpenak falta direlako, eta besteetan itzulpenekin arriskurik ez hartzea hobe delako.

Ikastaroan hitz egindakoari so eginez, udalak gaiaz kezkatzen hasiak direla ikusi zen, beren txikitasunean euskararen normalizazioaren alde arituz. Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat (HAPO) kontratatzeke baldintza agiria idazten ari zirela, herri bateko udalak pentsatu zuen HAPOa herritarrek onartu beharreko dokumentua zela eta, hortaz, prozesuan parte hartu beharreko arkitekto, abokatu zein ingeniariak euskaraz komunikatzeko gai izan behar zirela. Baldintza agirian argi laga zuten taldeek, ezagutza esparru bakoitzean (hau da, hirigintzan, juridikoan, eta abar) gutxienez pertsona bat behar zutela euskaraz komunikatzeko kapaza.

Asmo on horiek gaur egungo errealitatearekin egiten zuten talka (antza, talde bakar batek justifikatu ahal izan zuen euskararen ezagutza maila). Horrek ez du esan nahi, ordea, aurrerapausorik eman ezin denik, dogmetatik eta aurreiritzietatik at. Euskara arlo profesio-

lean ahula dela argi badago ere, ahulezia horrek indargune bat dakar: dena dago egiteke. Arkitektura proiektu batek Estatu espainoleko ohitura txarrak hartzen baditu, gure erantzuna ohitura txar horiek artezteka izan daiteke.

Adibide bat; hirigintzaren munduan lan egiten duten arkitektoen etengabeko kexu bat euskarazko itzulpenen gastua izan ohi da. Administrazioari entregatu beharreko dokumentuak ele bitan izan behar direnez, hirigintza taldeek gaztelaniaz idatzi ohi dute dokumentua, eta itzultzaile bati eman itzultzeko. Honek testuaren luzeraren arabera kobratuko du, eta badaude kasuak non itzultzaileek arkitektoak berak bezainbeste irabazi duten.

Horren aurrean, norena da errua? Proiektua gaztelaniaz burutzen duenarena? Administrazioarena, ele bitan eskatzen duelako? Akaso dokumentuarena berarena, inongo garrantzirik ez duen testu betegarritz apaindu dutelako, itzulpenaren luzera eta gastua handituz? •



Ilustrazioa: IBAI GANDIAGA PEREZ DE ALBENIZ

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Lasai, uda da, ez da aparteko ezer gertatuko

Garai batean, uda sasoian, kazetari beteranoek mezu lasaigarria uzten ziguten erredakzioan geratzen ginen gaztetxoei: «Lasai, uda da, ez duzue aparteko ezer izango». Ezin jakin hitz hauek bihotz onez gazteak lasaitzeko edo, erredakzioan hain ohikoa zen moduan, adarra jotzeko bota ohi zituzten, baina ez zuten errealitatearekin zerikusirik, azken orduko albisteek lantaldea estu-estu harrapatzen baitzuten urtero-urtero.

Garai hartatik hona albisteen ordutegia asko lasaitu da; nonbait, bulego ordutegia nagusitu da honetan ere. Beste garai batekoa da EGINeko errotatibatik, gauerdia- ren bueltan, egunkari banaketako Rojo izeneko txofer bat Hernaniko erdigunera joaten zenekoa, tabernaz taberna kazetari bila, tailerreko telefonoan azken orduko berri bat jaso zela abisatzeko. Ez zegoen orduan mugikorrrik, gerora “busca” sistema martxan jarri bazen ere, duela urte batzuk hil zen Rojo txofer-kazetariak abisua pasatu ahal zezan, kalean gora eta behera ibili beharrik gabe. Garagardo batzuk geratu ziren erdi edanda kazetariak ziztu bizian atera behar zutelako, errotatiba gelditu eta egunkaria berritzera.

Halaxe da, garai haiek joan ziren, nahiz eta azken astean GARAKo “zierre”-ak orduko usaina hartu duen, Nizako erasoak eta Turkiako estatu kolpeak dena hankaz gora jarri dutenean. Pil-pilean dugu

gaurkotasuna, eta aspaldiko eta eskarmentuzko kazetari haiek berriro ere adarra jotzera bueltatu direla sumatu dugu: «Lasai, uda da, ez duzue aparteko ezer izango».

Uda pasatuta, gainera, EAEko hauteskundeak izango dira, eta hori ere bazterrak astintzen ari da, albiste ikusgarriak eta guzti. Pili Zabala Podemosen lehendakari gaita izan daitekeela iragarri izanak soka luzea ekarri du. Irakurketa asko eta askotarikoak egin daitezke. Barne-mailan, adibidez, Podemosek bizi duen liskarra dugu, sektoreen arteko lehia nahiko gordina baita. Halere, barne-tirabira horiek ez diete hautetsontzietan ondorio txarrik ekarri. Udal eta foru hauteskundeetan, esaterako, sekulako emaitzak lortu zituzten, Uriarteren zuzendaritza osoak dimisioa aurkeztu berri zuela.

Mapa politikoan eta Legebiltzarrean izango duen eragina da, beraz, benetan aztertu beharrekoa, eta horretan

eragitera dator Zabala aurkeztu nahi izatea. Primarioak irabazi beharko ditu lehenik, baina jada, ezker-eskuin, hautagaitza honen esanahia interpretatzen hasiak gara. Erkorekaren aburuz, ezker abertzalearen ingurumarian mugitu ahal diren sektoreak erakarri nahi dituzte.

Ikuspuntu zabalagoa eman ahal zaio gaiari. Hau da, Aieteko Konferentziak eta ETak borroka armatua uzteko hartutako erabakiak egoera erabat aldatu ostean Estatuak nagusi bilakatu nahi izan duen kontakizunak (gaizkile talde bat edonor akabatzen, inongo gatazka politikorik gabe) ez duela batere sinesgarritasunik dakusagu. Podemosek ez zuen, ez, Meliton Manzanasen senide bat zerrendaburu jarriko, kontua gordin-gordin azalduta.

Erkorekaren hitzek esan nahi dutenari ere erreparatu behar zaio, ordea. EH Bilduk zailtasun handiak ditu hauteskunde ziklo honetan, hain zuzen, bozketokin amaituko den ziklo honetan. Aurrekoan, 2011ko gertaerekin sor-

EH Bilduren, Otegiren eta sortzen ari diren ekipoen eginbeharra da, orain, azken round honetan, gutxieneko oinarria uztea hurrengo urteotan prozesu politikoa berrartu ahal izateko

tutako giroari esker, sekulako emaitzak lortu zituen, oso denbora gutxian eta aurreikuspenetik goiti. Estrategia aldaketan protagonismo handia izan zuen pertsona batek ahapeka esan ohi zuenez, «azkarregi iritsi gara».

Prozesu politikoak izandako blokeoak eta ezkerreko independentismoak egindako akatsek oraingo hauteskunde zikloari modu kaskarrean ekitea ekarri zuten. Ekaineko hauteskundeek, hain txarrak izan ziren abendukoak baino kaskarragoak izanik, egoeraren zailtasuna azalarazi zuten argi eta garbi. Otegi kartzelatik irten izanak eta ezker abertzaleak hasitako birsortzeak ez dituzte hautesleen artean behar adinako ondorioak izan. EH Bilduren, Otegiren eta sortzen ari diren ekipoen eginbeharra da, orain, azken round honetan, gutxieneko oinarria uztea hurrengo urteotan prozesu politikoa (burujabetza prozesua eta gatazkaren konponbidea) berrartu ahal izateko. •



Gaudeamus koraleko kideak Gernika-Lumoko udaletxe aurrean, herrian egin zieten omenaldiaren baitan. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

KORALEN OLINPIADA

Gernikako Gaudeamus abesbatzak urre olinpikoa ekarri du Errusiatik

 **KULTURA** / Iker AGINAGA GARCIA

Sotxin (Errusia) izandako lehiaketan polifonia modalitatean abesbatzarik onena izanda, urrezko domina olinpikoa lortu du Gaudeamus Koralak. Abesbatzen munduan txapelketarik garrantzitsuena da olinpiada hau, mundu mailako korurik onenak elkartzen baitira 29 diziplinatan lehiatzeko, bi urtean behin.

Gaudeamus Korala inor gutxi-ri egingo zizkion ezagun orain dela egun gutxi. Gaur, behar bada ez da talde ospetsua izango, baina lekua hartu du azken egunetako egunkari, aldizkari eta albistegietan. Ez da gutxiagorako lortu duen

balentria: urrezko bi domina eta zilarrezko bat ekarri dituzte uztail hasieran Sotxin (Errusia) jokatu diren Koralen Olinpiadetatik Euskal Herrira.

Ospakizuneko argazkian, ikurinak airean daramatzan talde bat eta atzean «Gaudeamus Korala. 'Gold Medal': 93,25» dioen pantaila ageri dira. «93,26 izan zen puntuazioa, batez bestekoa

txarto egin zuten», zehaztu du barrez Julia Foruriak, koralaren zuzendariak, emaitzari buruz.

Nabarmenki pozik dago eta ez da gutxiagorako; izan ere, bere taldea munduko kantu txapelketa garrantzitsueneko polifonia diziplinan talderik onena izan da. Munduko onenak, modalitate horretan. Puntuazioaren inguruan oso harro agertu da, gainera: «Nik nekez jartzen ditut hamarrak musikan, artean dena hobetu daitekeelako. Guk bakarra ez, hamar asko lortu genituen». Puntuazioa emateko zazpi epaileek zenbait alorri begiratzen diete, zazpitik puntuazio onena eta txarrena ezabatzen dira eta geratzen diren bost emaitzen arteko batez bestekoa egiten da.

World Choir Games edo Abesbatzen Mundu Jokoak, horixe txapelketaren izena. Benetako olinpiadak dira, «musikaren olinpiadak», Foruriak azaldu duenez. «Elkarrekin abestuz nazioak batzen» lelopean, antolatzailerik ideia kiroleko olinpiar jokoetatik hartuta sortu zuten. Helburua Foruriak laburbildu du; «lehiaketa justu eta



Abesbatzena ez da izaten jendea masan mugitzen duen mugimendua. Gernika-Lumoko harreraren baina, espero baino jende gehiago batu zen plazara. Eta, musikariak, pozik omenaldiarekin.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

baketsu batean, musikaren birtartez pertsonen eta herriek bat egitea».

Bi urtean behin egiten da lehiaketa hau, 2000. urtetik, Linz-en (Austria) lehenengoz antolatu zenetik. Gerora, 2002an Busan (Hego Korea); 2004an Bremen (Alemania); 2006an Xiamen (Txina); 2008an Graz (Austria); 2010ean Shaoxing (Txina); 2012an Cincinnati (AEB) eta 2014an Riga (Letonia) hartu dituzte aterpe musikaren olinpiadek, aurtengoan Errusiako Sotxira ailegatu arte.

29 DIZIPLINA

Guztira 29 diziplinatan lehiatzen dira abesbatzak olinpiada berezi horietan. Instrumentuekin batzuk, *a capella* (instrumenturik gabe) beste batzuk, baita eszenikoak diren modalitateetan ere. Hau da, abesten dena antzeztu beharrekoetan.

2000. urtetik jokatzeko dira olinpiadak bi urtean behin; bederatzigarren edizioa izan da aurtengoa, beraz. Gernikarrek bost saio behar izan dituzte hainbatetan amestutako urre

olinpiko hau lortzeko. Linz-en lehenengoz egin zenetik dabil koral urre horren atzetik, Foruria zuzendariak Gernika-Lumoko udaletxean jasotako omenaldian hunkituta esan zuenez. Bost bider sartu dira olinpiadetan eta aurtengoa ez da izan beren lehenengo urrea. Bai, ordea, lehenengo «urre olinpikoa». Izenondoak berebiziko garrantzia hartzen du kasu honetan, 80 puntutik gora lortzen duen abesbatza orori ematen baitzaio urrezko domina baina diziplina bakoitzeko onenak baino ez baitu urre olinpikoa lortuta, podiumera igo eta

Bost bider abesbatzen olinpiadetan aritu ostean, urre ugari lortuak zituen koralak, baina aurtengoa izan da lehenengo «urre olinpikoa», diziplinan onenak izan diren seinale

Julia Foruria zuzendaria, emaitzak jakin zituzten momentuaren inguruan: «Bada denbora tarte bat ez dudana gogoratzen zer egin nuen ere. Bideoak ikusi beharko ditut»

modalitateko abesbatzarik onena izatearen ohoreaz gozatzen.

Gaudeamus gernikar abesbatzak 1994an hasi zuen bere ibilbidea, Gernikan bertan dagoen kontserbatorioari estu lotuta. Musika eskola 1990. urtean sortu zen eta bertako ikasleekin eratu zuen Foruria zuzendariak abesbatza, kontserbatorioan musika koral «derrigorrezko ikasgaia» zela baliatuta.


Foruriak agertu duenez, hiru abesbatza mota daude: ahots zurikoak, ahots baxukoak eta mistoak. Ahots zuriko abesbatza da Gaudeamus; hau da, emakume helduek eta neska mutil gazteek osatzen dute taldea. Heldu zein gazte, kide guztientzako esperientzia polita izan da. «Asko lehenengoz etorri dira olinpiadetara eta izugarri gozatu dute», nabarmendu du zuzendariak. Taldeko beste batzuk aurrekoetan egonak ziren eta «behingoz» podiumera igotzeko gogo nabaritzen zitzairen.

Bai berrientzat bai esperientzia zutenentzat emaitza «pasada bat» izan dela esan du Foruriak; izan ere, urrezko dominak

lortuak zituzten beste olinpiada batzuetan, baina hau izan da jasotzen duten lehen sari olinpikoa. «Denek bat egin genuen»; emaitza jakin aurretik oso urduri zeudela aitortu du eta zalantza zutela beraiek izango ote ziren aukeratuak. Egindakoaz pozik, agertokitik negarrez atera zirela oroitu du abesbatzako buruak, baina azken emaitza jakin arte zalantza hori iraun zuen; «norbait hobea egon daitekeelako».

Eta emaitza ikustean, eztanda. Saltoka eta bueltaka hasi omen zen zuzendaria, nora ezean, pozarren. Barreka eta harro dio: «Badago denbora tarte bat ez dudana oroitzen zer egin nuen ere. Bideoak ikusi beharko ditut».

Errusiatik bueltan, taldeak artean bidaiaren nekea gainean zuela, Gernika-Lumoko udaletxean harrera egin zieten. Hori ere polita eta hunkigarria izan zen kideentzat: «Udalbatza osoa zegoen eta guztiak biltzea zein zaila den jakinda, eskertzekoa da». Harreraren ostean, ohorezko aurrekua dantzatu zieten txapeldunei. Baina ez



zen udaletxe barruan bukatu ospakizuna. Udalbatzarekin bildu ostean, plazako jendearen babesa jasotzea falta zen. Ez zutela horrelakorik espero aitortu du Foruriak. Pentsa daiteke gutxi batzuek baino ez zutela interesik izango ospakizunean, ez baita abesbatzen mundua masa handiak mugitzen dituen horietakoa, baina ez zen jenderik falta plazan. Gogotsu zeuden herritarrek, gainera: «Zerbait esatera irten behar izan genuen, ez zirelako handik mugitzen». Eta ez hitz egin bakarrik, hobekien egiten dutena ere egin zuten, abestu, bertaratutakoen babesa eskertzeko.

MUSIKARI GARRANTZIA EMAN

Horrelako garaipenek, komunikabideetan egoteak eta jendearen babesa izateak ez dute txapelduna bakarrik saritzen eta poztzen. Foruriaren iritziz, bere taldeaz harago doan zerbait lortzen da horrelako berriekin. «Pixkanaka» musikaren munduari garrantzia ematen ari zaiola uste du, azkenaldian ahaztuta utzi ondoren «krisia eta abar» dela eta, baina horre-

lako gertakizunekin jendeak «gauza hauek existitzen direla jakiten du». Musikaren lanaz ari da. Horixe baita jende askorentzat, lana. Ez denbora-pasa, ez aisialdirako ekintza. «Euskal Herrian abesbatza asko daude, eta oso onak gainera». Horien lana azaleratzeko eta ezagutarazteko balioko du Gaudeamusen garaipen horrek.

Baina olinpiadak eta txapelketak ez dira koralaren egunerokoa. Abesbatzaren egunerokoa lana eta lana da urtean zehar. «Orain oporretan gauden», dio Foruriak. Merezita gainera. Irailera arte luzatuko dute oporraldia eta irailaren lehen ekingo diote berriz ere lanari.

Astegunetan musika eskolako ahots-teknika irakaslearekin euren kantatzeko modua hobetuko duten abileziak ikasten dituzte gazteek. Zuzendariak, gainera, hasiberriekin egiten du lan ostiraletan, kantak irakasten dizkie eta beren ahuleziak non dauden ikusi ere, pixkanaka horiek hobe ditzaten taldearen mailara azkar heltzeko. Larunbat goizak taldearen entseguetarako dira. Abesbatza



Ezkerreko irudian Julia Foruria, Gaudeamus Koralaren zuzendaria. Eskuinaldean, Errusiako egonaldiko zenbait une. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

osoa batu eta hiru orduz elkarrekin abesten dute normalean. Hala ere, txapelketaren bat hurbil dagoenean, «azkar» bazkaltzeko tarte laburra hartu eta beste hainbeste ordu hartzen dituzte arratsaldean, «edo igande goizetan, beharbada».

Ziur asko, horrela ibiliko dira aurtengo abenduan, Zumarragan arituko baitira bertan egiten den lehiaketa nazionalan. Aurreko edizioan ere parte hartu eta irabazi egin zuten, baita Torrevieján (Alacant) izandako Nazioarteko Habanera Txapelketa ere. Era horretan lortu zuten olinpiadetarako txartela,

Irailera arte oporretan dago abesbatza, baina lanera bueltatzean gogor ekingo diote lanari, abenduan Zumarragan izango den txapelketa nazionala prestatzeko

Datarik finkatu ez duen arren, erretiroan pentsatzen hasia dela aitortu du Foruriak: «Oso nekatuta nago, 18 urte nituenetik nabil musikan lanean»

hain nekagarriak diren sailkapen-faseetatik igaro gabe. «Egun osoa abesten ematen duzu, akabatu egiten zaituzte», dio zuzendariak faseoi buruz.

Etorkizunari begira, ezin da zalantzan jarri Gaudeamus Korala sasoi onean dagoela. Jende gazteak osatzen du taldea gehienbat eta gaztetasun horrek dakarren ilusio eta indarra-ekin, pentsatzekoa da datozen urteetan podiumera igotzen jarraituko dutela nonahi.

Hori daukate buruan kideek; zuzendariak, aldiz, bestelako planak ditu etorkizun hurbilean: «Oso nekatuta nago, 18 urte nituenetik nabil musikan lanean». Pixkanaka erretiratzeko garaia heldu zaiola uste du Foruriak, atsedean hartzeko ordua dela. «Horrek ez du esan nahi bihar utziko dudarik», zehaztu du, «baina pixkanaka topera lan egin nahi duen jende gazteari utzi behar zaio lekua».

Ez dio datarik jarri bere agurrari, baina eguna helduta, Euskal Herriko abesbatzei laguntza eta bultzada handia eman dien emakume bat agurtu beharko du musikaren munduak.



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Ekoizpen ekologikoaren topagunea prest dago

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) ekoizpen ekologikoaren inguruko erakusketa iraunkorra prestatu du bere egoitzan. Amorebieta-Etxanoko Udalak Jauregibarria baserriaren lagapenarengatik ezarri baldintzetako bat betetzen da horrela, publiko guztiei eta, bereziki, gaztetxoei zuzendutako erakusketa autogidatuaren instalazioarekin. Iragan asteazkenean inaugurazioa egin zen, Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikarako sailburuordearen, Roman Bengoa ENEEKeko lehendakariaren eta Andoni Agirrebeitia Amorebieta-Etxanoko alkatearen presentziarekin.

«Nekazaritza organikoa pertsonen, ekosistemen eta lurraren osasuna zaindu eta hobetzen duen ekoizpen-sistema da. Prozesu ekologikoetan, biodibertsitatean eta tokiko baldintzetara egokitutako zikloen eza-penean oinarritzen da, eragin kaltegarriak izan ditzaketen lehengaiak baztertuz. Nekazaritza organikoak tradizioa, berrikuntza eta zientzia uztartzen ditu. Bere helburuak dira guztiok partekatzen dugun ingurumena laguntzea, bizi-baldintza onak sustatzea eta pertsonen artean bidezko harremanak sortzea».

IFOAM1 erakundeak nekazaritza ekologikoz egiten duen definizio honek era egokian laburbiltzen du ekoizpen ekologikoaren arima. Printzipio eta balio horiek jendarte guztiari transmititzeko, eta ekoizpen ekologikoaren teknikak zertan datzan adierazteko asmoz, ENEEKek hainbat panel, formatu handiko irudiak, Euskadiko eragile ekologikoen mapa eta ikus-entzunezko edukiak batzen dituen ekipamendua prestatu du. Joan den asteazkenaz geroztik, ateak zabalik dauzka eta edonork bisita dezake, dohainik, ENEEKen bulegoetako lan-ordutegian.

ERAKARGARRIA ETA DIDAKTIKOA

Bisuala, erakargarria eta didaktikoa izatea du helburu erakusketak. Bisitariari harre-tamaina handiko mapa batek egiten dio, non ENEEKen inskribatuta dauden eragile guztien kokapena zehazten den. Mapan iltzatutako 523 koloredun txintxe-tek gure nekazaritza ekologikoak duen aberastasun eta aniztasunaren zantzua ematen dute. Erakusgelaren zatirik han-

diena ekoizpen ekologikoari buruzko xehetasunak azaltzen dituzten panelek hartzen dute.

Ekoizpen-azpijardueren arabera sailka-tutako hiru ataletan (nekazaritza, abel-tzaintza eta eraldaketa), Europako herrial-de guztientzat komuna den araudiko puntu garrantzitsuenen gainbegirada egi-ten da: hala nola, kasu guztietan lurrari lo-tutako ekoizpena izan behar dutela; biodi-bertsitatea zentzu zabalenean (ustiategian zein inguruko ekosisteman) zaindu eta in-dartu behar dela; ongarri organikoak soi-lik erabil daitezkeela; jatorri sintetikoko pestizida, plagizida, herbizida eta transge-nikoak erabiltzeko debekua; abereen ongi-zatea zaintzea; jatorri ekologikoko baliabi-de (adibidez, haziak, landareak, pentsua, bazka) eta lehengaiak soilik erabiltzea (produktu eraldatuaren kasuan)... Alegia, eredu ekologikora atxikitzen den ekoizle-ak konpromiso sendo bat hartzen du, eta horixe bera azaltzen da laugarren atal ba-tean, eragileek gardentasunarekin, pertso-nekin eta planetarekin hartzen duten kon-promisoa.

Panel bakoitzean dauden irudiak lagun-tzeko, euskarri digitaletan proiektatzen di-ren bi minutu eskaseko bideoak prestatu dituzte atal bakoitzari buruzko informa-zioarekin.

LURZORU EMANKORRAREN GARRANTZIA

Ekoizpen ekologikoaren berezitasunetako bat da lurraren berezko emankortasuna zaindu eta indartzen duen nekazaritza eta abeltzaintza eredu bat dela. Azken hamar-kadetan elikagaien ekoizpenak izandako bilakaeraren ondorioz, monolaborantza-ren eskutik ongarri nitrogenatuen, herbi-ziden, plagiziden eta pestiziden erabilera masifikatu egin da. Horrek ekarri duen ondorioetako bat lurzoru emankorren ga-lera da. Galera hori, gainera, areagotu egin da eraikinek, azpiegiturek eta bestelako gi-za-jarduerak hartutako lurzoru-azalerare-kin. Kontuan izan behar da elikagaien ekoizpenerako daukagun lur-azalera oso murrizta dela (kalkuluen arabera, planeta osoaren azaleraren %6,25 besterik ez). Ho-riek horrela, lur emankorra mantendu eta hobetzeko gaitasuna duten ekoizpen ere-duak bultzatzeak (nekazaritza ekologikoa, kasu) berebiziko garrantzia du. Erakusketa honetan lurzoru emankorrak mantentze-



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ak duen garrantzia azpimarratu nahi izan da, hain zuzen ere. Horretarako, hainbat zatitan banatutako sagar erraldoi bat instalatu dute gelako sabaian. Janaria ekoizteko eskuragarri daukagun lurraren balioki-dea litzateke sagar erraldoi horren azal zati nimiño bat.

PRAKTIKATUZ IKASI

Erakusketa hau adin guztietako pertso-nentzat prestatuta badago ere, bereziki ikastetxeetako gaztetxoak dira hartzaile nagusiak. Horiei begira, nekazaritza ekolo-gikoari buruzko unitate didaktiko bat prestatu da, baita lurraren analitika erra-zak egiteko espazio bat ere. Aztertuko den

lurra ENEEKen egoitzatik oso gertu dago-en baratze ekologiko batetik jasoko dute ikasleek. Esperimentazio-gune hau disei-natzeko, Neiker-Teknaliako Mikrobiologia eta Edafologia departamentuaren lagun-tza izan du ENEEKek. Datorren ikasturte-tik aurrera, Amorebieta-Etxanoko ikaste-txe guztiek erabili ahal izango dute baliabide hau, eta asmoa da epe laburrean eskaintza EAEko ikastetxe guztiei zabal-tzea.

ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua



Lerro hauen gainean, haur batzuk urarekin jolasean Iturenen.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Lerro hauen alboan, eskuinetara, Ondarretako hondartza jendez tope aste honetako egun bero batean.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





IKUSMIRA

GURE EROAN PIXKA BAT AGINTZEN DIGUN BAKARRA

Bustitzea libre. «Hoztu egingo zara» aspergarri hori entzun beharrik gabe. Eserita egotea libre, buruari «hau eta bestea egin behar dut» pentsatzeko baimenik eman gabe. Edonon etzatea libre, gorputzak eskatu orduan eta eskatu lekuan; zapla! Itzala sortzea libre. Jaietako herri bazkarian ez dago «*solysombra*»-rik. Baina asmatuko dute nola freskatu, irudimenez. Eta ez dituzte berehalakoan ahaztuko aurtengo jaiak.

Bero sargoriak harrapatu gaitu asteen. Bero sapa eta itsaskorra. Sua. Eta derrigorrean aldarazi du gure pausoa. Teilatua konpontzen ari diren langileak etxera joan dira. Errepidean ari direnek bertan segitu dute, baina etxean behar zutela pentsatu dugu autoko aire egokituaren freskuratik begiratu diegunean. Beroak agindu digu pausoa makaltzeko, lasai egoteko itzaletan eta freskuran, ez edukitzeko inorako presarik. Beroa pasatzen uzteko, denbora pasatzen uztearen inongo pisurik gabe. Beroak eutsi digu pausoa, batzuetan negu partean elurrak eusten digun moduan. Izan ere, oraindik eguraldia da gure eroan pixka bat agintzen digun bakarra.

amagoia.mujika@gaur8.info



Goiko argazkian,
emakume bat itzaletan
freskura bila Donostian,
asteon.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI
PRESS

Eskuinaldeko irudian,
Markina-Xemeingo
jaietan, gazte kuadrilla,
herri bazkaria noiz
hasiko zain.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS





Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ez da... Ez!

Lema edo kontsigna gisa ari da zabaltzen herriko jaietan barna, batez ere. Alemaniako Parlamentuak sexu askatasunaren arau-haustea finkatzeko muga gisa erabili berri du kontzeptua. Esaldiaren aplikazio eza-gunena, akaso, sexu eraso eta jarrera matxisten esparrutik iritsi zaigu. Azken batean, ordea, harremanen eremuko edozein arlotan erabilgarria litzateke, eta desiragarria, gainera, haren hedapena. Hartu-emanak botere harreman bihurtzeko arriskua duenean, eraso fisikoa ez izan arren hitzekoa, jarrerazkoa edo beste era batekoa bada ere, gertatu aurretik EZ bat badago, agian zenbait eraso ekidin daitezke.

Alde askotatik begira diezaiokegu esaera horri, dudarik gabe. Hitzak esanahia eta kolorea galtzen ari diren garai honetan, hitz-erdirik onartu behar ko ez lukeen esaldi biribila da. Izan ere, EZ ez da pixka bat, ez dakit, igual... EZ, ez da.

Hala ere, esaldiak funtziona dezan, EZ esaten duenak eta EZ entzuten duenak ezetzaren balioaz, hitzaren balioaz, alegia, jakitun izan beharko dute.

Zenbat denbora eskaini ote diogu, baina, haurrei, gazteei –edo zergatik ez, geure buruari– ezetzaren, ezetz hitzaren, balioa erakusteari? Noraino ote dugu barneratuta, denok ere, galderek bi erantzun dituztela: bai ala ez. Eta besteak ezetz esaten digunean, nahi ez duelako esan digula, iritsi garen lekura soilik iritsi nahi duela. Gure nahi handiena izanagatik, besteak ez duela nahi. Kito. Besteak muga ipini digu, ez dago zer egin.

Era berean, zenbatetan izan ote dugu umeei ezetz esateko beldurra? Hori egin dugun bakoitzean, neska-mutiei ezezko txiki horiek entzutea ukatu diegun bakoitzean, beste egoera batzuetan entzungo eta aurkituko dituzten ezezkoak kokatzeko eta kudeatzeko aukera galarazi diegu.

Gehienetan, jokaera horiek on beharrez egiten ditugu, noski. Ez dugu nahi gure haur eta gazteek sufri dezaten, eta horrela, oharkabea, gehiegizko babesaren ematen diegu, ahantziz egoera zailak

ere aukerak direla bizitzan oso baliagarriak gertatuko zaizkien estrategiak gartzeko. Aukera baliotsuenak, zenbaitean.

Konfiantza izan behar dugu neska-mutilengan, gaitasun handia dute indartsu egiteko, berezkoa dute, beraiekin dakarte, eta guk, gehiegi babesten ditugun aldiro, indartsu bilakatzeko aukerak murrizten dizkiegu.

Beste alde batetik ere begiratu beharko genioke ezezkoari. Hezitzaileok, familiekin eta jendarteak (eskolak, etxeak eta kaleak) eskain diezaiekegun ikaspenik aberatsena bere burua babesteko bideak eskaintzea da, ez bairik gabe. Beren burua babesteko tresnak eta estrategiak eskaintzea lortuko bagenu, egin dezakegun lanik ederrera egiten arituko ginatke: bizirau-penerako bitartekoak beren esku jartzea.

Ez ahaztu, bestalde, maitasunetik ere esan dezakegula ezetz. Maitasun keina izan baitaiteke ezetz esaten irakaslea eta ezetz entzuten irakastea.

EZ entzutera ohitu gabeko jendarteak sortzeko arriskuan gaude. Jende askorentzat egoera arrotza, ezohikoa, suerta daiteke bere burua ezezko baten aurrean aurkitzea. Baliteke EZ hitzaren esanahia ez ulertzea, ez dagoelako ohituta entzutera eta ez dakielako erantzun horren aurrean nola jokatu. Horren ondorioz, egoera ezezagunean aurkitzen dira, tresna eta bitartekorik gabe egoerak sortu dien frustrazioa nola kudeatu jakin ezinik, ez baitute aukerarik izan esperimentatzeko. Beren nahiari, apika, sekula ez dietelako mugarik jarri.

Interesgarria litzateke EZ hitza gainkarga negatibo eta ilunaz biluzten saiatzea, hitza desdramatizatzea, aukera gisa onartzea. Hugo Filkelstein psikologo eta idazle argentinarrek bide hori egiten hasteko giltza eder bat eskaini zizun bere poema batean: «EZ hori ez da iraganaren ukazioa: etorkizunari eginko zuzenketa da/ eta ezetz esaten dakienak soilik esan dezake BAI».

BAI esan edo EZ esan, eman baimena zeure buruari esan beharrekoa esateko. Gozatu udaz! •



Iruñeko azken sanferminetan, eraso sexisten kontrako bilkura.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

BERE LANA GUSTOKO DUEN AUTONOMOARENA (3)



Ainara Azpiazu
AXPI

iRRITZIA:



«Eztabaida despolitizatu eta lasaia egiten bada, inork ez du erraustegia defendatuko»

Guraso eta senideen mugimendu bat da GuraSOS. Kezkatuta daude Zubietan erraustegi bat egiteko asmoa dagoelako eta horrek eragina izan dezakeelako umeengan. Ez diote irtenbiderik ikusten gaur egungo blokeen arteko liskarrari. Eta azpiegitura kaltegarria ez dela bermatzerik ez dagoenez, ez dute egiterik nahi. Alternatiba zein den? Argi dute: adostasuna.

Eztabaida prozesu bat behar dela defendatzen duzue. Zer-nola-koa?

Joseba Belaustegi: Informazioa zabaldu behar da, hitz egin, jakin... Informazio oso gutxi dagoelako. Eta eztabaida lasaia bultzatu behar da gizartean. Gaia despolitizatu, gizarteratu berriro, eta hortik abiatuta ardura-dun politikoei hondakinen arazoa konpontzea proposatu. Ez da erraza, baina, adostasun horretan oinarrituta, denak elkarrekin norabide berean joanez, posible dela uste dugu, erraustegirik egin gabe.


Joxemari Izeta: Gaia hain politizatua egon denez, guraso askok deskonektatu egin genuen. Eta GuraSOSek arrakasta badauka da une berri bat zabaldu delako eta despolitizatuz berriro konektatu nahi dugulako gaiarekin. Agintean daudenek onartzen badute politizatu izanak ez duela ekarri behar bezalako eztabaida sakonik eta kutsu hori alde batera uzteko gai badira, orduan planteatuko da gaia zintzoki. Aukera bikoitza zabaltzen da: bata politikariak gizartera begira jartzeko eta bestea gizar-teari hain inportanteak diren gaitan zuzenean parte hartze-ko aukera emateko.

J. B: Aukera esaten du Joxemari-rik; nik ardura gehituko nioke. Gizartearen parte garenok ardu-

JOSEBA BELAUSTEGI JOXEMARI IZETA GURASOS-EKO KIDEAK

69.000 haur eta 201 eskola daude Zubietan aurreikusitako erraustegiaren eragin eremuan. Gurasoek bi toxikotasun garbitu nahi dituzte: kimiko eta politikoak.

Maidar Iantzi Goienetxe



rak ditugu eta horien jabe egin behar dugu. Guraso bezala ez dugu denbora asko, baina pauso bat eman dugu, ardurak hartzen ari gara eta hori oso positiboa da. Hori da bidea, gizarteak zuzenki parte har dezala. Nola bideratu diezaiokezu zure eta zure haurren osasunaren gaineko ardura beste inori? Zure ardura da. Heldutasuna behar da; Euskal Herrian oso leialak gara bozkatzeko dugun alderdiarekiko, oso erraz lerrokatzen gara, baina alderdiak iritzi bat eduki dezake gai bati buruz eta guk beste bat, eta hori ez da txarra, lasai-lasai adierazi eta normaltasunez hartu behar dugu. Horregatik, guretzat ez du balio «jendeak hau bozkatu du» esateak, jendeak alderdi bat bozkatu baitu eta ez mandatu zehatz bat.

J. I: Gizartearen behar batekin konektatzen ez badu, ekimenak ez du aurrera egiten. Beraz, esan dezakegu gizarteak berak sortu duela, behar bat zegoelako, itzalean zegoena. Baldintzak egon direnean agertu da, orain ond- doak aterako diren bezala. Bes- tela Donostian egin zen ekaina- ren 19ko desfilea ez zen gertatuko, ez da sortzen halako

olatu bat Kontxan ez badago ba- rruan indarrik.

Ideologia desberdinetako per- tsonak zaudete, hortaz, Gura- SOSen elkartuta?

J. B: GuraSOS guztiok eroso ego- teko etxea izatea nahi dugu, nahiz eta bakoitzak hondakinen kudeaketari buruz bere hautua egin. Lortu dugula uste dut. Gai- nera, ez zaigu batere kostatu, ez dugu liskar bat ere eduki. Hori da harrigarriena. Elkartasuna oso naturala eta erraza izan da.

J. I: Segur aski planteamendua oso sinplea delako: osasunaren defentsa, guztiona, haurrena ba- tik bat. Bakoitzak bere ekarpe- nak egingo ditu, baina denak on- tzi berera joango dira.

J. B: Jendeak, babesaz gain, ados- tasuna nahi du. Eta aukera ikus- ten du. Zailtasuna ere bai, para- digma aldatu behar delako, egoera batetik guztiz kontrako batera pasatuz, baina denok es- kutik joanez gero jendeak bada- ki egingo dela. Gizartea, jendea, eskutik jarri gara, denok batera. Posible dela frogatu dugu eta gauza bera egiteko eskatuko die- gu politikariei. Horretarako, Gi- puzkoako Foru Aldundiarekin elkartzekoak gara [joan den as- tean], eta Batzarretako talde guztiei ere eskatu diegu bilera.

J. I: Politikariak diren heinean adostasunak bilatzeko eskatu behar zaie, ez desberdintasunak markatzeko, hori egiten dutela- ko azken batean. Gizartean gai honen aurrean lidergoa hartu beharko lukete adostasun bate- ra iristeko. Eta horrela planteatzen badute, agian denok izango gara garaile. Liskar bezala plan- teatzen badute, berriz, segur as- ki denok izango gara galtzaile. Paradigma aldaketak denok ira- bazle izan gaitzkeen eztabaida guneak sortzea ere eskatzen du.

Baina lortuko da interes eko- nomikoen gainetik osasuna jartzea?

J. B: Gizartearen erronka bat da hori. Oraingoz esperantza izate- ko motiboak badaude eta ikusi- ko dugu. Planteamendu berria

da, sinplea baina gordina. Batzuetan erabaki egin behar da eta guk osasuna lehenetsi behar dela esaten dugu. Gure manifestua sinatzen duenak osasuna lehenestea eskatzen du interes ekonomiko eta politikoen gaitetik. Lortuko den? Guk baietz pentsatzen dugu, abagune ona delako: erraustegiaren proiektua ez da oraindik abiatu, eta bestetik, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorra oraintxe bukatuko da eta berria egin behar da. Orain arte eztabaida ez da termino haue-
tan egin eta egiteko eskatzen dugu. Badirudi Foru Aldundia hasiera batean prest azaldu dela. Horrela bada uste dugu eztabaida horretan bai aterako dela interes ekonomikoen gaitetik osasuna lehenesteko irizpidea.

Etsipenik sumatu duzue jendearen artean?

J. B: Bai, jendea pixka bat etsita ikusi dugu pentsatzen duelako interes ekonomikoek dena ahal dutela. Bada, guk horren aurrean jartzen dugu gurasoek, animalia espezie guztietakoek, erakutsi dutela beren haurrak edo espeziea mantentzeko edozertarako gai direla eta sekulako indarra daukatela. Guk naturaren indar hori guztia ordezkatu nahi dugu, eta ziur gaude interes ekonomikoen gaitetik gailenduko dela gizartea, espeziea bera babestu behar duelako. Naturaren eta interes ekonomikoen arteko talka da, eta guk pentsatzen dugu naturak, gure espezieak irabaziko duela. Horretarako bultzada da gurasoen indarra, naturala, gure haurrak babestekoa.

J. I: Segur aski haurrak jarri ditugunean eztabaidaren erdigunean guraso askok zentzu natural horregatik konektatu dute.

Politikariek zer irabaz dezakete adostasunarekin?

J. B: Prestigioa. Gizartearen aurrean galtzen ari diren sinesgarritasuna berreskuratzeko eta jendearekin konektatzeko aukera ona dute. Frogatzeko gai direla lehiatik kanpo aritzeko, jendeak beren interesen arabera



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

IBILBIDEA

Maiatzaren 7an ekin zion lanari GuraSOsek. Lasarte-Orian aurkezpena egin, eta manifestu bat osatu zuen. Dagoeneko 15.000 atxikimendutik gora bildu ditu. Orona-Ideon jardunaldi bat antolatu zuen, eta desfile edo babes hesi ikusgarri eta jendetsua osatu Donostian, ekainaren 19an. Ekimen juridikoa ere hasi du.



jarduten dutela ikusten baitu. Erakutsi dezatela badakitela batzuetan beren lehentasun batzuei uko egiten denen onuraren alde. Hori frogatzen badute irabazi egingo dute. Gure hitzaldietan, zeintzuk garen azaltzen dugunean, esaten dugu hau bukatzerakoan jende guztiak hasieran bozkatzeko zuten alderdia bozkatzeko jarraitzea nahi dugula. Gure nahia ez da inork bere botoa aldatzea.

Nahiz eta umerik ez izan bat egin daiteke zuekin, ezta?

J. I: Afrikar esaera zahar batek dio haur bat hezteko leinu oso bat behar dela. Zentzu horretan denok gara guraso, haurrenganako ardura azaltzen dugun guztiok. Osaba-izeba asko daude elkarteetan, aitona-amona ugari...


Elkarte gisa antolatuta zaude-te. Zein da funtzionamendua?

J. B: Autonomia eta independen-
tzia ditugu ‘arau’ eta horretara-


ko ez diogu inori diru laguntzarik eskatuko. Bazkide bakoitzak 50 euro jarri ditugu. Gutxi gorabehera ehunen bat kide izango gara. Bestetik, auzolanean antolatzen gara. Bakoitzak dakiena egiten du. Webgune bat egin du analista informatikoa den guraso kubatar batek; diseinu grafiko guztia 8-9 hilabeteko haurdun zegoen eta umea oraintxe eduki duen ama argentinar batek egin du musu-truk; legelaria ni neu naiz; eskulanetan trebea denak tximinia bat egin du; prentsa arduraduna ama bat da; ikerketa medikoak ama biologo batek egin ditu; aita bat ingeniaria da; irakasleak ere badira, medikuak... Funtzionamendua da bilera ahalik eta gutxien egitea, gurasoak garelako. WhatsApp adiktu bihurtu gara, eta webgunea eta sare sozialak ere baliatzen ditugu.

Ekimen juridiko bat abiatu du-zue. Azaldu zertan datzan.

J. B: Giza eskubide batetik abiatzen da: hauteskundeetan ordezkariak aukeratzeaz gain, politikan zuzenki parte hartzeko dugun eskubidetik. Foru erabakietan parte-hartzea nolakoa izango den zehazten duen arau bat dago Gipuzkoan. Bertan aukera ematen zaigu gu bezalako elkarteei eztabaida abia dadila eskatzeko. Eta hori egin dugu, hondakinen kudeaketa orokorra, erraustegia barne, eztabaizatzen hasteko eskatu. Horrek esan nahi du plan berria erabaki arte, eztabaida egiten den bitartean, erraustegiari uko egingo zaiola. Gure ekimena pixka bat zailtzen duena da batzuetan esaten dutela erabakia hartuta dagoela. Bai, 2002an hartu zen. Baina hartuta dagoela ulertuko balitz ere, foru arauak aukera ematen du eztabaida prozesua abia dadila eskatzeko erabakita-ko politika publiko bati buruz, adibidez erraustegiari buruz, oraindik gauzatu gabe dagoela-



«Oso leialak gara bozkatzen dugun alderdiarekiko, baina honek iritzi bat eduki dezake gai bati buruz eta guk beste bat, eta hori ez da txarra, lasai adierazi eta normaltasunez hartu behar dugu»



ko. Eskaera hori onartzeko bi baldintza bete behar dira: gizar-tean gaiarekiko eztabaida sozia-la berpiztea edo aurreikusi ezin zen tamaina hartzea; eta proiektua bera nabarmen aldatzea. Bi baldintzak betetzen direla uste dugu. Hondakinekiko gipuzkoa-rren ohiturak asko aldatu dira.

Zer erantzun dizue Aldundiak?

J. B: Hilabeteko epea dauka ezta-baida irekiko den ala ez erantzuteko. Partzuergoaren bilera bat deitu du, lizitazioa irekitzeko, uztailaren 28rako. Publikoki eztabaida irekitzeko prest dagoela adierazi du, erraustegia egin ala ez barne hartuta, baina argitu du horrek ez duela esan nahi proiektua gelditu behar denik. Guk hori ez dugu bateragarri ikusten, ezin delako eskatzen dugun eztabaida sakon eta lasaia egin paraleloki proiektua aurrera badoa. Baina 28koa ez dugu beren behin betiko planteamendu bezala hartzen. Hemendik 28ra egun batzuk daude eta itxaropena daukagu behintzat aurre adostasuna lortzeko bi puntutan: eztabaida has dezagun, azkar egin dezagun; eta lasaitasuna bermatzeko, ezta-

baida egin bitartean alde batera utz dezagun erraustegia. Udazken honetan jokatuko dira baza inportanteak.

Bi hilabeteko bide oparoa egin duzue.

J. B: Maiatzaren 7an hasi ginen. Aurkezpen ekitaldia egin genuen Lasarte-Orian; manifestu bat osatu dugu eta 15.000 atxikimendutik gora lortu ditugu; Orona-Ideon jardunaldi bat antolatu genuen; babes hesia edo desfilea egin genuen Donostian; eta azkenik ekimen juridikoa. Dena bi hilabeteen, gogo, ilusio, behar eta indar handia dugulako.

J. I: Eta gizartearen aldetik erantzun ona jasotzen ari garelako. Potentzial handi bat dagoela sumatzen dugu eta bideratu egin behar da.

Eta potentzial handiagoa egon daiteke informazioa zabaltzen bada, ezta?

J. B: Eztabaida guk esaten dugun terminoetan ematen bada inork ez du publikoki defendatuko erraustegi bat egin behar dela. Argi daukagu. Arrisku

erreal batzuk daude eta aukera badago hondakinen arazoa konpontzeko erraustegirik gabe bide hori hartu behar da. Pedro Gorrotxategi Euskadiko Pediatren Elkarteko lehendakariak hori bera esan zuen 2004an. Gure esku dago arrisku bat gehiago jartzea edo ez.

Zein arrisku nagusi ditu erraustegiak?

J. B: Hondakin guztiak erretzen dira bertan. Adibidez, lohiak. Hauek merkurioa eta uretatik datorren edozein metal astun jasotzen dute. Ordenagailu eramangarrien estaldura ere erretzen da, katalogatu gabe dauden material berriei egin. Jakina da hauek minbizia eragin dezaketela. Produktu kimiko eta plastiko berri pila bat daude oraindik azterketarik eta emisio neurririk ez dutenak, eta dena erretzen da. Ezin da jakin zer erretzen den egunero produktua berriak sortzen direlako.

Jendeak pentsa dezake toxikoak direla, bai, baina ez dela hainbertzerako...

J. I: Hedabide batzuetan aldeko zientzialariak agertzen dira eta

horrek pentsarazten ahal du batzuk kontra daudela baina beste batzuk alde. Eztabaidan zintotasuna eskatzen dugu, edonork esan dezakeelako ikerketa serioetan oinarritu gabe ez dela hain arriskutsua. Zientzia ere erabiltzen ari gara manipulatzeko, eta guk eztabaida patxadatsu horretan nahi duguna da egin diren ikerketak, aldekoak eta kontra-koak, aurrez aurre jarri eta hausnarketa serio eta neutral bat egin.

J. B: Hori ez da berria. Tabakoa ere gertatu zen, baita amiantoarekin ere. 1939an Osasunaren Mundu Erakundeak jada esaten zuen minbizia sor zezakeela, eta Estatu espainolean 2004an debekatu zen. Guraso batzuen kezka zera da: hemen-dik hamar urtera norbaitek esango digu baietz, erraustegia minbizi eragile dela? Ez dugu kezka eta beldur hori nahi. Kezkatzeko motibo nahikoa dago ez egiteko. Ez dugu arriskua gauzatzerik nahi. Arriskua nahikoa da babesteko.

J. I: Gainera, beste gauza asko egin daitezke.

J. B: Zein izango den sistemarik onena? Denen adostasuna lortzen duena.

Erraustegiak bereziki kaltetuko lituzke umeak?

J. B: 69.000 haur eta 201 eskola daude eragin eremuan. Badira azterketak azaltzen dutenak kutsadura handiagoa dela haur-rengan kalean asko ibiltzen direlako eta kontaktu handia dutelako lurra-ekin.

Zein pauso emanen dituzue hurrena?

J. B: Hainbeste gauza egin ditugu hain denbora gutxian eta ez dugu denborarik izan herri-eta-hurbiltzeko. Pixkanaka ari gara deitzen diguten lekuetan hitzaldiak ematen. Gure asmoa da uda aprobetxatzea herrietan GuraSOS taldeak sortzeko eta jendea gonbidatzen dugu filosofia honekin bat egiten badu animatzera. Zubietaren inguruko herrietatik zabaltzen ari da mugimendua. Kurtso hasieran beste urrats bat egingo dugu atxikimendu, mugimendu sozial eta beste ekimenekin. Bigarren bultzada eman nahi dugu. Abiatu baino ez gara egin.

Ni naiz naizena

Mirari Martiarena

Emakume batek Donostiako denda batean gustatu zaizkion galtzak 40 neurrian eskatu ditu. Dendariak «taila handirik» ez dutela erantzun dio. Twitterreko txio batean irakurri dut. Harritu egin nau 40 neurria handitzat jotzen dutela irakurtzeak. Harritu esatea gutxi da, amorratu eta haserretu egin naiz. Nire jantziak beti izan dira neurri handietakoak: XL, XXL, 50-52 neurrikoak, 120ko bularretakoak...

Umetatik jasan behar izan ditut dendarien erruki begiradak. Arropa denda batera sartu eta alferrik sartu naizela esaten duten begirada horiek. Gure amak bakarrik jakingo du zenbat aldiz bueltatu naizen haserretuta eta negar batean etxera. Gustuko arroparik erosi

gabe, erositakoa besterik ez zegoelako hartuta eta jantzi berriak behar nituela. 15 urterekin 60 urteko andreek arropak erosten zituzten dendetara joan behar izaten nuen. Pentsa, adin horretan horrek zer esan nahi duen. Oraindik saltoki horien aurretik pasatzen naizenean orduko sentimendu ilunak izaten ditut; ez dut denda horien eskapareetara begiratu ere egiten.

Sentimendu ilunak, nire jantziak bezala. Beltza beltzaren gainetik jantzita pasatu ditut urteak. Mundu guztiak dakielako beltzak estilizatu egiten duela. Gainerakoen begiraden aurrean argaldu egiten zaituela. Gainerakoek zenbat eta gutxiago ikusi, hobe. Besteen begietan bizi gara, etengabeko eskaparetean. La-

gunekin bizi nintzenean etxetik atera aurretik pisukideak nazkatzen nituen behin eta berriz «ondo nago?» galdetuz. Orain bakarrik bizi naizenez, nik jarri behar izaten dut ispiluaren aurrean eta neronek erantzun neure buruari.

«Ispilu aurreko islan beti nahi dudana naiz» dioen abestia aho txikiarekin abesten nuen, inoiz ez nintzelako nahi nuen. 40 neurriko galtzak janzteko gorpuzta nahi bainuen. «Neurri handiko» arropa gero eta gehiago egiten dituzte; «normalak» baino garestiagoak izaten dira, baina gutxienez balio izan dute nire armairua kolorez betetzeko. Ispiluaren aurrean ez naiz beti nahi dudana, baina beste abesti baten oihartzunak «ni naiz naizena» erantzuten du. •

Sionismoaren garroak Kanpezun

Koldo Sagasti

Pasa den ekainaren 7an Kanpezuko (Araba) Udalbatzak aho batez onartu zuen herriak nazioarteko BDZ (Israelen aurkako Boikot, Desinbertsioak eta Zigorrak) kanpainari atxikitze mozioa. Ebazpenak Israelgo apartheid erregimenarekiko balizko harreman guztiak eteteko galdegiten zion Udalari, harik eta kanpainak ezartzen dituen giza eskubideekiko begirunezko gutxieneko aldarrikapenak betetzen diren arte.

Mendialdekoa ez da, baina, Euskal Herrian gisa horretako mozioa onartzen duen lehenengo udalerria. Alta, aurrekoe-tan ez bezala, arabarrek ACOM (Ekialde Er-tainerako Komunikazioa eta Ekintza) ize-neko erakundearen jakinarazpena jaso

zuten handik astebetera, udalbatzako ak-tak eman ziezazkietela eskatzeko. Egun batzuk geroago eskaera auzi-errekurtso bi-lakatu zen.

Ez dago jakiterik delako elkarte horren atzean nor dagoen, ez eledunik edo koka-pen fisikorik ote duten ere, bakarrik web-gune bat dutela eta bertan azaldutako as-mo sendo bat: espainiar Estatuan Israelekiko harremanak sustatzea eta esta-tu hebrearraren irudia normalizatzea.

Kanpezuko Udalekoek ezin izan dute ja-kin nork izenpetzen duen jasotako salake-ta, baina bai espainiar Estatu osoan antze-ko mozioak onartu dituzten erakunde-en aurka jarritako helegiteen atzean erakun-de berbera dagoela. Israelen aldeko presio

taldeek txoko ezkutueneko elkartasun adierazpenei erasotzeko duten gaitasunak agerian uzten du gure gizartean duten es-ku-hartzea, batetik; baina baita haien ahu-lezia ere. Izan ere, udal txiki batean onar-tutako mozioa atzera botatzeko horrenbeste baliabide legal eta ekonomi-ko bideratu behar badute, arrazoibidearen borroka galduta dutelako izango da.

Kanpezuko dema, oraingoz, galdu egin da. Udalak atzera egin du, tamaina horre-tako auzi-errekurtso batean sartzeak he-rriari ekar liezaiokeen galera ekonomikoa-ren beldurrez. Baina Israelgo lobbyaren aparatu juridiko guztiek ezingo diote luza-roan aurre egin goraka doan elkartasun olatu honi. •



Olatz Arbelaiz

Informatika eta informatikariak: haurren begirada

Susmoa dut hedabideek zabaltzen duten informatikarien irudiak eragin nabarmena duela informatika ikasketak egitea erabaki lezaketen gasteengan. Baina horiek zabaltzen duten irudia eta jendartearen ustea bat al datoz? Berdina da emakumezkoek eta gizonezkoek duten irudia?

Kezka hau nahikoa zabaldua dago; hala nola, UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko “Estereotipos Informática” lanean argitaratutakoaren arabera, jendarteak informatikaria estereotipatzeko joera du: gaitasun matematikoak dituen, jende arraroa, teknologia obsesio duena, barnerakoia, sozialki traketsa eta antzeko ezaugarriak egotzen dizkiete informatikariei. Ez da harritzekoa hori hala izatea, hedabideek lanbideko profesionalen buruz ematen duten irudia eta gudan duten eragina zein den jakinik. 2008an argitaratutako “The IT Crowd: Are We Stereotypes?” lanak argi uzten du izen bereko telesailaren kasua. 40 pertsonari (20 informatikari eta 20 ikasle) egindako inkestan oinarritzen da. Inkesta erantzun zuten pertsonen telesailaren agertzen diren informatikariak, gizonetzkoak noski, deskribatu zituzten. Horretarako erabilitako adjektiboen (izaerazko zein fisikokoak) %91 negatiboak ziren; %6,5 positiboak eta %2,5 neutroak. Elkarrizketatutako profesionalen oso maila txikian ikusi zuten beren burua telesailen islatuta eta maila are txikiagoan, emakumezkoek. Bestalde, elkarrizketatutako ikasleek, telesaila ikusi ondoren, lanbidearekiko oso interes maila txikia agertu zuten. Egileen arabera, alde batetik horrelako mediotan egiten diren deskribapenak estereotipoekin datoz bat informatikarion lanarekin baino eta, bestetik, era horretako irudiek ez dituzte etorkizuneko profesionalak erakartzen. Eragin horien aurretik, nolako irudia dugu?

Testuinguru honetan esperimentu txiki bat egin dugu udaberrian. Joan den urteko azaroan UEUko Informatika Sailaren eta EHUko Donostia-ko Informatika Fakultatearen arteko elkarlanari esker www.code.org euskaratzea lortu ondoren, inguruko ikastetxeetara “kode ordu bat” eskaintzera joateko aitzakia ederra genuela sentitu genuen. “Kode ordu bat” ordubetez modu dibertigarrian programatzen aritzea eta oinarritzko kontzeptuak ikastea da. Mugimendu globala da, 180 herrialde baino gehiagotako milioika ikaslerengana iristen dena eta munduko edozein txokotako edozein pertsonak antola dezakeena. Informatika ingeniariatzako graduoko ikasleak irakasle aritu dira Euskal Herriko 8 eskolatan, 10-12 urte arteko 350 ikaslerekin. Esperientzia hori iza-

teaz oso pozik gaude denak; gaztetxoek ederki pasatu zuten eta ikasi egin zuten, eskoletan oso pozik daude jasotakoarekin, eta azkenik, irakasle lanak egin dituztenak ederki moldatu dira eta errepikatzen prest daude! Datorren ikasturtean, mundu osoan egingen den unean antolatuko dugu kode ordua: abenduan.

Kode orduarekin batera, irudi bidezko inkestatxo bat pasatu diegu gaztetxoei, informatikaren erabilera esparruei eta informatikarien itxura eta lan-inguruneari buruz duten iritzia jasotzeko, eta 267 erantzun jaso ditugu. Lehenengo zertzelada batzuk ekarriko ditut hona.

Informatikaren erabilera esparruari dagokionez, medikuntza, artea, kimika, autogintza, jantzigintza, etxegintza, bideo-jokoak, musika, zuzenbidea, hizkuntzalaritza, ordenagailu-sareak eta hezkuntza eman zaizkie aukera gisa. Gaztetxoek horietan guztietan informatika erabiltzen dela adierazi dute neurri batean ala bestean, informazioa behar denean. Bideo-jokeen atzean informatika identifikatzen ez dutenak badiren arren, oro har, bideo-joko edo ordenagailu-sareak gehientsuenek lotzen dituzte informatikarekin. Beste muturrean medikuntza, artea, musikagintza eta zuzenbidea dira gaztetxo gehiagoren arabera informatika erabiltzen ez dutenak. Aukera horiek egitean, desberdintasuna handiagoa da eskolen arabera generoaren arabera baino.


Informatikari bat eta haren lan-ingurunea marrazteko eskatu diegunean, aldiz, alde nabarmenak agertu dira neskato eta mutilen artean. Neskek joera handixeagoa dute informatikariak taldean marrazteko mutilek baino (%24tik %17ra jaisten da), baina joera nagusia bakarka irudikatzea da. Betaurrekoen erabilera, ordea,

berdin baloratzen dute batzuek zein bestee; irudien %42etan ageri gara betaurrekoekin. Informatikariaren generoa aztertzen badugu, erantzun guztien arabera, %30ek emakumea marrazten dute, %52k gizonezkoa, eta %17an zaila da bereiztea. Azterketa haurren generoaren arabera bereizten badugu, emaitzak oso desberdinak dira. Mutilen kasuan, emakumezko, gizonezko eta definitu gabekoen portzentajeak %10, %68 eta %21 dira hurrenez hurren, eta neskatoen kasuan, aldiz, %50, %36 eta %13. Inkestaren arabera, beraz, 10-12 urteko neskatoen erdiek eta mutil batzuek informatikariak emakume irudikatzen dituzte.



BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ARCHIVO GENERAL DE LA ADMINISTRACION. ALCALA DE HENARES

1936KO UZTAILAREN 23KO DONOSTIAKO BARRIKADA

1936. urteko uztailaren 22an ehunka militar abiatu ziren Loiolako kuarteletik helburu garbi batekin: Donostiako eraikin estrategikoak hartu eta faxisten estatu kolpearekin bat egin. Eguna argitu orduko agertu ziren Urbieta kalean altxatuak, baina haien pareko erantzuna segituan piztu zen eta Donostiaren defendatzaileek barrikadak antolatu zituzten Amara Zahar inguruan. Ehizako fusilekin, dinamita kartutxoekin, etxean egindako lehergailuekin eta molotov koktelekkin erantzun zioten eraso faxistari eta borroka biziak egunak iraun zituen. Loiolako kuartelekoak uztailaren 28an errenditu ziren. Bertan zeuden guztiak atxilo hartu eta Al-
dundiaren egoitzara eraman zituzten. Goiko argazkia 1936. urteko uztailaren 23an hartua izan zen eta Amara Zaharreko barrikadetako bat ikus daiteke, Larramendi kalean, CNTren egoitza zegoen inguruan.



GAUR8 *ireki gure leihoo*

